

Hitzaurrea

Deustuko Unibertsitateko (Bilbao) Giza Eskubideen Institutuak Ekintza Humanitarioko eta Giza Eskubideetako Urtekariaren laugarren edizioa aurkezten du honako liburuki honekin. Argitalpen honen helburua Ekintza Humanitarioko eta Giza Eskubideetako praktiken, esperientzien eta ikerketen hausnarketarako eta truke-rako toki bat eskaintzea da akademiko, profesional eta arlo honetan diharduten pertsoneri. Urtekariak esparru honetako pentsamendu kritikoa sortzeko espazioa eskaintzen jarraitzeko asmoa du argitalpen honekin, mundu akademikoarentzat ez ezik arlo honetako gizarte eragileentzat ere, estatu eta nazioarte mailan. Kalitatezko argitalpen bat eskaini eta maila zientifikoan onespena bilatu nahiari loturik, asmo hori lortzeko berrikuntza batzuk sartu ditugu eskuartean duzun argitalpen honetan.

Prestakuntza esparruan, Institutuaren erreferenterik nagusienak bi dira: bata Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Masterra da. Duela 10 urtetik gora ematen da Bilbon NOHA Sarea (Network On Humanitarian Assistance) osatzen duten Europako beste sei unibertsitateekin batera. Sarea osatzeko, duela bi urtetik hona hitzarmenak sinatu ditu beste kontinente batzuetako unibertsitateekin Erasmus Mundus programaren barruan. 12 urte hauetan, 200 ikaslek baino gehiagok egin dute ikastaroa Deustuko Unibertsitatean eta horietatik asko dira gaur egun ekintza humanitarioari, giza eskubideak babesteari edo garapenerako lankidetzari lotuta daudenak. Edukiak eta egitura mundu humanitarioetik sortzen ziren beharrezanetara egokituz joan dira denbora honetan zehar. Eta aldaketa horiek eskura dauden sareei esker egin ahal izan dira, errealitatearekin harreman estua izateko aukera ematen baitute, ekintza humanitarioan zuzenean lanean ari diren erakundeen bidez, batez ere Gobernuz Kanpoko Erakundeen bidez, baita zenbait foro akademikoren bidez ere.

Urtekariaren hirugarren edizio honen edukiak hiru ekarpen motatatik hornitzen dira: batzuk Institutuko taldeak parte hartzen duen Europako sareetako bateko pertsonen ikerketetatik; beste batzuk Institutuaren egituratik kanpo, ekintza humanitarioan eta giza eskubideen alorrean esperientzia zuzena duten pertsonen egindako ikerketetatik; eta azkenik, beste ikerketa batzuek Institutuak berak eskaintzen dituen Europako masterretako graduatuek egindako ikerlanak jaso eta eguneratzen dituzte. Edukirik gehienek ikerketa edo artikuluko monografikoen itxura hartzen dute, azken urteotan zeregin humanitarioan aritu diren masterretako ikasle ohien lekukotasunak eta hausnarketak jasotzen dituen atal bat ere gehitu bada ere.

Argitalpen honekin, Urtekariak aurrera pausak eman nahi ditu nazioartean ezagunak diren aldizkari zientifikoak jasotzen dituzten datu baseetan sartzeko behar diren irizpideak betetzeko. Joan den urteko nobedadeez gain, edizio honetan aholkularitza batzorde bat ere ageri da, kalitate hobea ematen lagunduko diona, inolako zalantzarik gabe. Beste berrikuntza bat ere izango da: deialdi irekia egongo da artikuluko originalak bidaltzeko, horretarako estilo arauetan ikusiko duzuen bezala, eta ekarpen guztiek kanpoko ebaluatzaileen irizpena jasoko dute.

Argitalpen hau Institutuak joan den ikasturtean burututako jarduerarik nabarmenenekin osatzen da. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren (Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila) laguntzarekin kaleratzen da urtekari hau.

Derechos de autor (Copyright)

Los derechos de autor de esta publicación pertenecen a la editorial Universidad de Deusto. El acceso al contenido digital de cualquier número del Anuario de Acción Humanitaria y Derechos Humanos (en adelante Anuario) es gratuito inmediatamente después de su publicación. Los trabajos podrán descargarse, copiar y difundir, sin fines comerciales y según lo previsto por la ley. Así mismo, los trabajos editados en el Anuario pueden ser publicados con posterioridad en otros medios o revistas, siempre que el autor indique con claridad y en la primera nota a pie de página que el trabajo se publicó por primera vez en el Anuario, con indicación del número, año, páginas y DOI (si procede). La revista se vende impresa Bajo Demanda.